



Familia Amoris Laetitia
Año 2021 - 2022

Klik hemen

Familiaren urtea



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA

Maitasuna ezkontzan

Familia Jainkoaren Hitzaren argitan

«Egunero, bestearen bizitzan sartzean, baita geure bizitzaren zati denean ere, ezinbestekoa da konfiantza eta errespetua berrituko dituen jarrera ez inbaditzailearen samurtasuna». AL 99



Motibazioa Frantzisko Aita Santuarekin

«Senar-emazteok, maitasunean bikain egin zaitzaketen sakramentuaren graziaren dohaina duzue... Beraz, hitz egin dezagun maitasunaz! Maitasuna eraman handikoa da, onbera da. Maitasunak ez dio inori bekaizkeriarik, ez da harrotzen ez da harrokeriaz puzten. Maitasunak ez du begirunea galtzen, ez du bere interesa bilatzen, ez da haserretzen. Maitasunak ez du jasotako gaitza kontuan hartzen, ez da bidegabekeriak pozten, egiaz baizik».

«Maitasunak dena barkatzen du, dena sinesten, dena itxaroten, dena jasaten. Dena! Edozein gauza! Kontuak kontu, maitasuna da. Maitatzea, bestearengatik, bere arrakastengatik poztea da. Zein garrantzitsua den haurrei besteen poztasuna ospatzen irakastea! Urtebetetzea, lorpena! Ederra baita familian ospatzea poztasuna!».



Otoitza

Jauna, maitasuna eroapen handikoa da, bakotxaren denpora itxaroteko gauza izan naitela. Jauna, maitasuna borondate onekoa da, nahiz eta kostatu, nire onaren aurretik besteena opa daidala.

Jauna, maitasuna ez da bekaiztia, poztu naitela neu be besteen arrakastez.

Jauna, maitasuna ez da harrotzen, apaltasuna izan daidala zure doeak autortzeko. Jauna, maitasuna ez da harroputza, besteak erdian jarri daidazala.

Jauna, maitasunak ez dau errespetua galtzen, zure aurpegia ikusi daidala bestearengan.

Jauna, maitasunak ez dau bere interesa bilatzen, probatu daidala doakotasunaren poztasuna.

Amen



Elkarrekin ikusteko

"Up" pelikularen bideoa.

Eszena hauetan, senar-emazte batzuen bizitza ikus dezakegu. Eta, ondoren, ikusitako hori familian komentatu:

- + Zer iruditu zaigu?
- + Bat gatoz ikusitakoarekin?
- + Nola bizi izan dugu orain arte maitasuna familian?



Sakontzeko

■ 'Amoris Laetitia' irakurri

'Maitasuna ezkontzan'
Amoris laetitia, 89-119

■ Gehiago nahi izanez gero, [klik hemen!](#)

